



xa sencillamente  
transformar la realidad



www.mensajesenredados.com

2017ko urtarrila

Begirada soziala Eskolapioen Bilboko kristinau alkartetik

# Gerraren negozioa: egundoko aberasbidea

## Gure mundua bakerako desarmatu

### Gastu militarra krisialdian

2015ean gastu militarra gora egin eban; 2014agaz alderatuz, %1ekoa izan zan igoera hori, hau da, 1,7 bilioi dolarretakoa. Gehikuntza handiena Erdialdeko eta Ekialdeko Europan, Asian, Ozeanian eta Ekialde Hurbilean izan zan. Gastu gehieneko zerrendaren buruan jarraitzen dabe EEBBek, 596 mila milioi dolarrakaz (munduko gastu guztiaren %36a). Ondoren, Txina dago, 215 milioi eta Errusia, 66, 4 milioi. Datuek aldaketak erakusten dabez munduko geoestrategian eta gatazken lekualdatzean.

EEBBek eta Mendebaldeko Europak gastu militarra eta indar militarren kopurua gitxitu egin dabezala aitatu beharra dago, baina, era berean, beste era bateko armak jadetsi dabez, merkeagoak baina arriskutsuak eta kontrol bakoak (dronak eta beste teknologia militar batzuk) eta defentsako aurrekontuaren zati handi bat barne segurtasunera pasatu dabe

Espainiaren kasuan, 2016an 17.500 milioi euro inguru gastatu zan arlo militarrean (benetako gastua handiagoa da eta beste partida batzuetan ezkututzen da eta urtero 2.000 milioi desbideratzen dira). Defentsako ministroak aurrekontuak gehitu egin behar dirala dino behin eta barriro. Zelan egingo dau, Gobernuak, Batasun Europarrak eskatuta, 5.500 milioi murriztu behar baditu? Krisialdia indarrean da eta murrizketak izan dira gizarte arloan baina halanda be, gastu militarra neurritz kanpoko da: BPGaren %1,57a eta Estaduko aurrekontuen %4a.

### Heriotza, salerosketagai

Armen salerosketa irabazi handiak emoten dituan eta gorantz doan negozioa da; askotan ilun samarra, interes estrategiko, politiko eta ekonomikoak nahastatzen diralako, ustez defentsari lotutakoez gainera.

Orokorrean, irabazi gehien dakarren merkataritza da eta, bere atzetik drogenak eta

prostituzinoarenak. Azken 10 urteetan, urtero batez beste 100.000 milioi dolar mobidu izan dira. Salerosketaren jatorria hauxe da, ordena honetan: EEBB, Errusia, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Txina, Espainia (zazpigarren) eta Italia.

Gitxi-asko ezaguna dan salerosteaz harago, ez dago armen inongo kontrolrik: 640 milioi arma mobiduten dira munduan eta 8 milioi gehiago eta 16.000 milioi bala fabrikatzen da urtero. Pobretasunari, sufrimentuari eta giza eskubideen bortxaketari eusteko balio aben arma arinak.

Espainiari dagokionez, 2015ean, armen esportazioen zenbatekoa 3.720 milioi eurotakoa izan zan (2014an baino %16 eta 2006an baino %391 gehiago). Aurton, 10.676 milioi eurotako esportazioak baimendu dira, sekula baino gehiago (armen esportazioaren munduko %4,4a eta Espainiaren merkataritza-balantzaren %1,5a).

Esportazio honeen %24,5a Ekialde Ertaineko herrialdeetara (Saudi Arabia, Oman, Egipto eta Irak) zuzendu izan da. Eta esportazio horreek legez kanpokotzat hartu daitezke armen merkataritzari buruzko legeria bera kontuan hartu ezker, lurralde horretan dagoan ezegonkortasunagaitik eta Siria, Libia, Egipto edo Yemengo gatazketan nahasita dagozan aldeei babesa emoten deusien Saudi Arabia edo Emirerri Arabiarren eraginagaitik.

Arlo honetan, hiru kasu kezagarri nabarmentzen dira: Saudi Arabia lako erregimen ez demokratikoagazko hartu-emon estu eta lehenasunezkoa; Maxam enpresa-taldearen lehergaiak ISISen esku amaitu izana eta Espainian egindako armak Yemeneko gerran agertzea.

Euskadiko eta Espainiako enpresa garrantzitsu eta gertuko batzuk irabazi handiko negozio honen onuradunen artean dagoz: SAPA, Aernnova (lehen Gamesa), ITP, Precicast, SENER...

## Muga-gerrak, negozio berri eta errentagarria

Europar Batasunak mugetako segurtasun neurriei dagokienez egin eban inbertsinoak gorakada handia jasan eban 2016an, eta armen eta segurtasunaren arloan nabarmentzen diran enpresak izan ziran onuradun nagusiak. Halanda be, BEko mugak militarizatzeak egundoko kostua ekarri dau giza arloan: 2016an, 5.000 lagun baino gehiago –agertu diranak- hil zan Mediterraneoan, urte bakar batean sekula izan dan kopururik altuena, errefuxiatuek gero eta ibilpide arriskutsuagoak burutu behar dabezalako Europar sartzeko.

Hainbat txotenetan jasoten danaren arabera, mugetako segurtasuna militarizatetik etekina ateratzen dauan industria, Ekialde Ertainean eta Ipar Afrikan gatazkak eta giza eskubideen bortxaketak suspertzen dituan industria bera da. Mugetako segurtasunerako kontratuen onuradun nagusi diranen arteko hiru enpresa –Airbus, Finmeccanica eta Thales- Ekialde Ertaineko eta Ipar Afrikako herrialdeei modu aktiboan armak saltzen ari ziran Europako lau arma-merkatari nagusien artean egozan.

Muga eta Kostaldean Zaintzarako Europako Agentziaren aurrekontua 238,7 milioi euroakoa izan da 2016an, %67,4 gehiago 2015eko 142,6 milioi euroakaz alderatuz. Gainera, 2016an, BEko Barne Segurtasunerako Fondoa %22 gehitu zan, guztira, 647,5 milioi eutotakoa izan zalarik.

Mark Akkermanek (txosten honeetako baten egileak) adierazo dauanez, “hildakoen kopuruari dagokionez marka guztiak hausten ari diran sasoi honetan mugetako segurtasunaren merkatuak bizi dauan gorakadak argi eta garbi izten dau, zoritxarrez, zeintzuk diran EBaren lehentasunak. Gure mugak militarizatuz, armen eta segurtasunaren arloko enpresak saritzen doguz eta arriskuan jarten errefuxiatuak. Honeen etsipena egundokoa da eta hartu behar dabezan neurriak etsi-etsian hartzen dabez, besteak beste, ibilpide guztiz arriskutsuak hartuz, azken batean, Europara heldu eta babesa lortzeko”. [<https://www.tni.org/es/publicacion/querras-de-frontera>]

## Parte hartu desmilitarizazioaren eta negozio armatuaren amaieraren aldeko kanpainetan

### ¿INVIERTE TU BANCO EN ARMAS?

#### EL TOP 20 DE LA BANCA ARMADA ESPAÑOLA 2016

| Entidad financiera           | Valor              |
|------------------------------|--------------------|
| 1. BBVA                      | 2.746.121.954,61 € |
| 2. Santander                 | 1.518.304.347,55 € |
| 3. Banca March               | 223.489.061,11 €   |
| 4. Bankia                    | 180.919.246,50 €   |
| 5. Caixabank                 | 87.525.635,60 €    |
| 6. Banco Popular             | 82.918.380,44 €    |
| 7. Banco Sabadell            | 51.551.463,00 €    |
| 8. Bankinter                 | 48.597.800,81 €    |
| 9. Mutua Madrileña           | 24.044.771,72 €    |
| 10. Unicaja                  | 19.646.357,85 €    |
| 11. Banco Mare Nostrum (BMN) | 16.902.113,80 €    |
| 12. Caja Rural               | 16.472.208,34 €    |
| 13. Ibercaja                 | 2.896.103,25 €     |
| 14. Kutxabank                | 2.733.850,19 €     |
| 15. Liberbank                | 2.381.952,77 €     |
| 16. Banco Alcalá             | 2.000.744,27 €     |
| 17. Mapfre                   | 1.243.036,21 €     |
| 18. Banco Caminos            | 988.578,74 €       |
| 19. Caja de Arquitectos      | 98.415,01 €        |
| 20. Banco Mediolanum         | 56.333,69 €        |



Armen industriaren finantzaketaren aurka:

[www.bancaarmada.org](http://www.bancaarmada.org)



Armen salerosketaren aurka:

[www.controlarms.org](http://www.controlarms.org)



**NO PAGUES LA GUERRA** HAZ OBJECCIÓN FISCAL  
con tus impuestos AL GASTO MILITAR

<http://www.nodo50.org/objecionfiscal>



Arma nuklearren abolizinoia:

[www.icanw.org](http://www.icanw.org)



Murritzatu daigun gastu militarra:

[www.demilitarize.org](http://www.demilitarize.org)

Global Campaign on Military Spending

Estekak,  
gehiago  
jakiteko

- Stockholm International Peace Research Institute (SIPRI): [www.sipri.org](http://www.sipri.org)
- Centro Delàs de Estudios para la Paz: [www.centredelas.org](http://www.centredelas.org)